

“IPUSKUA. IZANETIK IZANERA 1025-2025”

PRENTSAURREKOA

XABIER EZEIZABARRENA BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARIAREN HITZAK

Lehenik eta behin, poztekoa da Gipuzkoa izenaren aztarna idatzia. Altzoko Salvatore elizan gordetako agirian izena irakur dezakegu mila urte geroago: “Ipuscua”. Eta hau oroitzera eta berritzera goazen urte honetan, ondo egokia da Foru Aldundiak asmatu duten goiburua: “*Ipuskua. Izanetik izanera 1025-2025*”.

“Ipuscua” idatziz jarri zutenerako, pentsatzekoa da zaharragoa dela izena. Batzar Nagusiak ere erakunde zaharra dira, baina ez zaharkitua. Gipuzkoa bezala. Izen zaharra eta gaurko izena, geroan iraun dezan nahi duguna.

Aipatu nahi dut lan ederra dela Euskaltzaindiaren Onomastika sailak, Foru Aldundiak lagunduta, 2019an argitaratutako “*Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*”, Patxi Salaberrik eta Luis Mari Zalduek egin. Zenbat gauza jakingarri! Ez dagokit hizkuntzaren barrunbeetan sartzea, baina ideia bat hartuko dut lan horretatik: hitz zaharrena “g”-rik ez duen “Ipuzkoa” dela dirudien arren, “Gipuzkoa” ere hasieratik-edo lekukotzen dela dio Euskaltzaindiak, eta, jatorrizkoa *iputz* edo *giputz* izan, *Gipuzkoa* izenak ‘giputzen lurra’ esan nahi zuela, ‘giputzak bizi diren lurraldea’.

Hemen badugu ikasgai bat: mila urtean, eta lehenagotik, bazen Gipuzkoa eta gipuzkoarrak. Hain zuzen ere 1025an Iruñeko edo Nafarroako Erresumaren barnean. Historian zehar, mugak ere aldakorrek dira eta. Hortaz “Ipuscua” izena idatzi zutenekiko zordun gara; eta, aldi berean, gure ondorengoekiko erantzule. Aurrekoek iraun egin zuten, Gipuzkoari eutsiz, gipuzkoarren lurraldeari, eta hemen gaude. Hartu egin dugu Gipuzkoa, hartzaileak gara, eta oraingo Gipuzkoako biztanleak.

Beraz, milurteko hau aukera izan daiteke iraupena erakusten diguten eta gerora bultzatzen gaituzten balioak ikusteko gure iraganean eta nola eguneratu pentsatzeko. Gure historiako alderdi argitsuak baina baita ilunak ere, zer zaindu eta zer utzi erabakitze. Iraganak aurrera egiten erakusten baitigu. Baina iraganaren lezioak ezagutzeko, ezagutu egin behar dugu, ikasi gure iragana. Gaur egun begirada motzak indar handiegia du, ‘orain eta hemen’ eta kito. Inoiz baino baliabide gehiago ditugu eta erabil ditzagun izan ginena ikasi eta transmititzeko, gure historia, herriak eraikitzen lagundu duten bizitza ikuskerak.



Hamar mendeko gizaldiak dauzkagu eta gehiago, bultzaka. Zorioneko garela esan dezakegu, erroak dauzkagulako. Iragan aberatsa. Eta globalizazio handi honen erdian irauteko, sustraiak, izenetatik hasita, Ipuscua, eta gaurko Gipuzkoa, hala nola euskarazko herri izenak, euskaraz sortuak, euskarak moldatuak.

Eta azken binomio bat “Ipuscua” hitzarekin: euskara eta herria. Gipuzkoa bakarra da baina ez bakarrik izatekoa ez itxita aritzekoa. Euskaraz bizitzeak beste inorekin ez bezala elkartu du Gipuzkoa euskal lurraldeekin, Lapurdi, Nafarroa eta Bizkaiarekin, nahiz Araba eta Zuberorekin. Eta euskarak eman dio Gipuzkoari Euskal Herrikoa dela jabetzea, beste lurraldeekin batean.

Hau guztia gogoan, Batzar Nagusiek bi ekintza pentsatu dituzte: orain mila urteko idazkiaren faksimile-agiria argitaratzea, 150 ale izango dira, eta bestetik, Altzon Batzar Nagusi ez ohikoa egitea, urrian.

2025-01-10

